

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

BERGARAKO UDALA

*Iragarkia*

Jakinarazten da Alkateak, 2022ko urtarrilaren 25ean honako Dekretu hau eman duela:

«Bergarako Udaleko alkateak 2021eko uztailaren 23an emanako dekretu baten bitartez erabaki zuen ondoren aipatzen diren hautaketa-prozesuen oinarriak onartzea eta dagozkien deialdiak egitea, lehiaketa-oposizio sistemaren bidez eta kontratu finkoarekin honako hauek kontratatzeko:

1. Obra eta Zerbitzuetako Brigadarako obretako ofizial igeltsero bat, deialdi irekiaren bidez.
2. Obra eta Zerbitzuetako Brigadarako obretako ofizial igeltsero bat, barne promozioaren bidez.

Oinarriak 2021eko abuztuaren 30eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren.

Obra eta Zerbitzuetako Brigadarako obretako ofizial igeltseroa lehiaketa-oposizio irekiaren sistemaren bidez kontratatzeko deialdiaren oinarrietan honako hau jasota dago:

Oposizioaldiaren fasea bukatu aurretik, deialdi honetaz baliatuz udalak bigarren lanpostu bat betetzea ere erabaki dezake.

Ikusita barne promozioan igeltsero plaza bat betetzeko deialdiaren parte hartutako izangaiek ez dutela oposizioaldia gaintzitu eta ez dutela erreklamaziorik aurkeztu.

Hori ikusita,

ERABAKI DUT

*Lehenengoa:* Barne promozioan igeltsero plaza bat betetzeko deialdi hutsik aitortzea eta deialdi libre bidez igeltsero plaza bat betetzeko deialdiaren oposizioaldia oraindik ez denez guztiz amaitu, deialdi honetaz baliatuz Udaleko plantillan hutsik dagoen igeltsero ofizialaren bigarren lanpostua betetzea.

*Bigarrena:* Erabaki hau argitaratzea udalaren web orrian, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta udaleko iragarki taulan.»

Ebazpenaren aurkako bideak:

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabete epea dago, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabete epean iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki iruditutako beste edozein errekurtsu ere jar daiteke.

AYUNTAMIENTO DE BERGARA

*Anuncio*

Se comunica que el Alcalde ha emitido el 25 de enero de 2022 el siguiente Decreto:

«El Alcalde del Ayuntamiento de Bergara, mediante Decreto de 23 de julio de 2021, acordó aprobar las bases de los procesos de selección y realizar las convocatorias de contratación, mediante el sistema de concurso-oposición y con contrato fijo, siguientes:

1. Un/Una oficial albañil de obras para la Brigada de Obras y Servicios, mediante convocatoria abierta.
2. Un/una oficial albañil de obras para la Brigada de Obras y Servicios, mediante promoción interna.

Las bases se publicaron en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 30 de agosto de 2021.

En las bases de la convocatoria para la contratación por el sistema de concurso-oposición libre de un/a trabajador/a oficial albañil de obras para la Brigada de Obras y Servicios se recoge lo siguiente:

Antes de la finalización de la fase de oposición, el ayuntamiento podrá determinar que mediante la presente convocatoria se realice también la provisión de un segundo puesto de trabajo.

Visto que las personas aspirantes que han participado en la promoción interna para la provisión de una plaza de albañil no han superado la fase de oposición y no han presentado reclamación alguna.

En vista de ello,

HE RESUELTO

*Primero:* Declarar desierta la convocatoria para la provisión de una plaza de oficial albañil en promoción interna. Por otra parte y, dado que la fase de oposición de la convocatoria para la provisión de una plaza de albañil por convocatoria libre aún no ha finalizado, proceder en dicha convocatoria a la cobertura de la segunda plaza de albañil oficial vacante en la plantilla.

*Segundo:* Publicar esta resolución en la página web municipal, en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento.»

Recursos contra la resolución:

Contra la resolución que se le notifica, y que es definitiva en vía administrativa, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución que se notifica podrá interponerse recurso de reposición ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de un mes a contar desde el siguiente a la publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Todo ello sin perjuicio de que pueda ejercitarse cualquier otro recurso que se estime procedente.

*Lege-oinarria:* Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergara, 2022ko urtarrilaren 26a.—Idazkaria. (492)

*Fundamentos jurídicos:* Todo ello conforme a lo dispuesto en los artículos 114.c, 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el artículo 8 de la Ley 29/1998 de 13 de julio reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa según redacción dada por la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre y el art. 46 de la misma Ley así como el artículo 5 del Código Civil.

Bergara, 26 de enero de 2022.—La secretaria. (492)